

opusdei.org

Jaungoikoaren oso zentzuzko ez den aitatasun horixe da artistak daukana bere lanarekiko

Javier Santurtun, Barakaldoko
gauza txiki eta zaharkituen
margolaria

2004 Abe 2

Javier Santurtun, 1956an Barakaldon
jaioa, Euskal Herriko Unibertsitatean
Arte Ederretan lizentziatua, 1979tik
1999ra Leioako Gaztelueta

ikastetxean Arte Plastikoetako irakaslea. Batera jardun du beti irakaskuntza eginkizunean eta margolanean. Gaur egun margolaritzako eta eskulturako esparruak jorratzen ditu, eskultura publikoa barne.

Zure weben azalpenen artean "materia berrerostea" aipatzen duzu. Zer esan nahi duzu?

Laurogeita hamarreko hamarkadan desindustrializazioa gertatzen denean eta lantegiak gelditzen eta botatzen ari direnean, zoko ezkutuen bila bertaratzen naiz ni: ia margotzeko gai ez diren gauzak, utzitako hondakinak eta zentzurik gabeko guneak. Sarritan arakatzen ditut eta argazki asko ateratzen dut, ibilaldi hauetan zer edo zer esango didan zerbait egon behar duelakoan, gauza zaharkitu hauek anonimatu eta deuseztatzetik ateratzera eramango duena, susmo hau

areagotuz doan prozesu luze eta –
agian – azalgaitz batean.

Objektiboa arrimatu eta lehen
begiratuan "hain ikusgarri" ez diren
xehetasunetara zuzentzen dut. Une
honetan erakargarri zaidana
mamituz, landuz, hausnartuz
(kanpotik begiratuta burugabekeria
litekeena, ez baita samurra gure
arrazoiak ulertzea) materiazko gauza
hauekin maitemintzen hasten naiz,
halako errukia sortzen zait eta,
haienak egin duela ezin onartuz. Eta
beren eskasian berrerosiak izateko
duin bihurtzen dituen lilura
aurkitzen diet (erorialditik izate
modu berri batera jasoak, jatorrago
agertuz gure aurrean, erabilgarri
zirenean baino).

Bada prozesu honetan azpimarra
daitekeen zerbait: txikiena eta
txiroena denak ere, badezakeela
gorde eta erakuts susmatzen ez
genuen aberastasunik, berari

patxadaz begiratzuz gero. Gizakiari buruz ere, erraza da ondorio bera ateratzea, neure burua gauza horietan ispiluetan bezala islatzen baita, eta gizakiaren ahuleriaren zein goitasunaren ikur direlako.

Zu fededun zara, Opus Deiko kidea. Zer modutan daude presente Jaungoikoa eta erlijioa zure lanean?

Noski nabaritzen direla nire lanean Jaungoikoarekin dudan harremana eta nire bizitzan duen tokia. Are gehiago, artistaren lanak sarritan adierazten duelako haren barrena; bizitza eta lana lotuta daude eta elkarri eragiten diote. Daukadan eginkizuna, niretzat, poz jarioa da (gogoz egiten dena eta aberastu egiten zaituena) eta esker onez aritzen naiz, "artistaren bizitza gogorra" izan arren.

Egiten duzunaren motorra ez da dirua irabaztea, beste interes eta

amets batzuk baizik, minagoak direnak. Azken batean, abentura bat da, batzutan sufritu arazten zaituena, eta bestetan zorionez betetzen. Baina "egiten utzi ezin zenezakeen" zerbait da, hainbeste nahasten zaitu beste gauza batzuk uzteraino (erosotasuna, seguritatea, lasaitasun ekonomikoa,...). Balorazio irizpide honek agerian uzten du "beste arrazoiengatik" jarduten duzula, beharbada ezohikoak.

Baina ez da lan egitearen atsegina bakarrik: zure jarrera besteei helarazteak ere eragiten baitizu, zure lanaren eta orokorrean zure bizitzaren bitartez. Nire ustez, Jaungoikoak ere amets horixe eduki dezake: nire lana besteentzako on eta bake iturri izatea, alegia, edo gizakiaren arimaren aberastasuna islatzen duten gauzei begiratzen laguntzen duena. Nire asmoa ez da nire lana prediku bihurtzea. Nik aukeratu dudan bizimoduaren

ondorio oinarritzkoa, zintzoa eta
xaloa da, nahi gabe sortutakoa,
Jaungoikoaren eskuak egunero
berrerosten nauela sinetsita, nigan
jartzen duela bere begirada
maitekorra, Berak bere egiten dituela
nire ilusioak... Eta ni (hain gutxi
naizena) garrantzi handiko zerbait
naizela Jaungoikoarentzat.
Jaungoikoaren oso zentzuzko ez den
aitatasun horixe da artistak daukana
bere lanarekiko eta bere eginkizun
sortzailearekiko.

Horrela ulertzen dut nik Joan Paulo
II.ak, artistei zuzendutako
eskutitzean, edertasunaren
zerbitzurako artistaren deiaz hitz
egitea, baita guztien ongirako
artearen espirituzko zerbitzuaz. Nire
ustez, artistak asko eskain diezaieke
besteei, ez berak egiten
duenarengatik, bera denarengatik
baizik, mundua eta bere bizitza
ulertzeko moduagatik. Bere
lanbideari esker baditu halako

gaitasun batzuk gauzak gainditzeko, espirituala eta betierekoa “ukitzeko”. Gero, bakoitzarena da besteei agertzeko erantzukizuna, norberak dituen tresnez eta begirada berezkoez.

Industri gaiak ohikoak dira zure eginkizunean. Bizi zaren inguruneak baldintzatzen al du zure lana?

Ia etengabe gertatu da horrela. Nire gaiek lantegia, Bilboko itsasadarra, beti bizi izan naizen Barakaldoko industria hirigintza izan dute ardatz. 74ean, nire lehenengo gauzak egiten hasi nintzenean, ezagutzen ari nintzen margolariek gai hauei ateratzen zieten etekina ikustea deigarri gertatzen zitzaidan. Gauzei erreparatzen ikasten nuen, nik bizitzen nuen errealitatea irudikatzen zuten bezala, alegia. Giro lodi eta mamitsu, erre eta zikin haietan antzematen zekiten lilurak

eta edertasunak dar-dar ipintzen
ninduten... Eta nire lehenengo
koadroetan, magia eta begirada
horien bila nenbilen, haien antzera.

Geroztik gaurdaino gai hau izan dut
zeregin, eta agortzen ari zela ematen
zuen bakoitzean ikuspegi berri batek
lantzen jarraitzeko bide berriak
zabaltzen zizkidan. Orain, esate
baterako, itxura abstraktuago duen
ikuspuntu batetik ekiten diot,
narratiboari uko eginez eta tankera
soilagoak eta neurritsuagoak bilatuz.

Informazio gehiago:
www.santurtun.com

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/jaungoikoaren-oso-
zentzuzko-ez-den-aitatasun-horixe-da-
artistak-daukana-bere-lanarekiko/](https://opusdei.org/eu-es/article/jaungoikoaren-oso-zentzuzko-ez-den-aitatasun-horixe-da-artistak-daukana-bere-lanarekiko/) (2026
Mar 21)